

Nafarroa

Nafarroako gehigarria / Ostirala, 1994ko apirilak 15 / IV. urtea / 123. zenbakia

Erriberririk gabeko Erriberriko Jaialdiak

Nafarroako Jaialdiek euren irudi garrantzitsue-
na galduko dute aurten, erabakita baitago Erribe-
rrik ez duela ikuskizunik izanen. Deszentraliza-
zioa eta eguraldi kaskarra dira gobernuaren argu-
dioak, eta Elizondo izanen da aurtengo sede berria.
'Erriberriko Jaialdiak' izenez jaio zirenak, horre-
la, umezurtz geldituko dira. Horrekin batera Gaz-
teluaren aprobetxamendua pribatizatzeke asmoa
du Kultura Departamentuak, eta horretarako 30
milioi pezetako inbertsioak egingen dira aurki.



Metropoli forala

FELIPE RIUS

Air bag

Kotxeetan jartzen hasi di-
ren 'air bag' horietako bat
beharko genuke bizitzan
ere eguneroko kolpe emoziona-
letatik eta istripu esistentzialeta-
tik libratzeko, eta bestela gal die-
zaioletela Kurt Cobain Nirvana
taldeko liderrari. Orain arte as-
kok uste zuten dirua, ospea eta
arrakasta trapezista hartzen duen
sarea bezalakoak zirela, baina
batzutan sarearen zuloak han-
diegiak izaten dira, edo ez dute
gloriaren pisu astuna erresisti-
tzen. Amildegian ez dago poltsa
salbatzailerik eta gorputza-gor-

pua beherantza doa erremediorik
gabe, ahanzturaruntz kasu ge-
hienetan eta, paradoxa badirudi
ere, hilezkortasunerantz beste
batzutan. Dena dela, erori nahi
den tokia aukeratu ondoren, sal-
toa oso ongi kalkulatu beharra
dago, edozein modutan sorpre-
sak aurki ditzakegula jakinik.
Askok mitoen paradisura iritsiko
zirelakoan eman zuten azken
pausua eta bere izena ez dago
inoren gogoan idatzirik; beste
batzuk, berriz, ezerezean galdu
nahi izan zuten eta haize bolada
traidore batek historia liburu



guztietara edo gizarte baten he-
roien zerrenda kapritxosora era-
man zituen. Orain negarrez ari
dira eternitatea nahi ez zuten leku
batean pasa behar dutelako eta
pentsatzen dute azken momen-
tuan bizitzaren 'air bag-a' akzio-
natu balitz beste aukera bat izan-
go zuketela. Egia da poltsa mi-

rakulutsua izanez gero Lou
Reed-en bizitzaren alde basatia
eta arriskutsuak bere xarma guz-
tia galduko lukeela eta mitoak
izan nahi ez zuten mitoen zerren-
da txikiagoa izango litzateke,
baina agian Neil Young gehiago
izango genuke gure artean —hala
ere ez dut uste Cobain hainbeste
miresten omen zuen Neil Young
izatera iritsiko zenik—. Alki-
mista modernoak lanean ari dira
eta agian egun batean altzairuzko
kasko batek inguratuko du auto-
matikoki gure burua pistola dis-
paratzean edo gibelak atzera bo-

tako du droga sobrantea. Baina
telebista eta egunkarietako ira-
garkietan bizitzarako 'air bag'
seguroak —ahal bada kopilo-
toarentzat ere bai— ikusten ez
ditugun bitartean hobe dugu ba-
besa norbaiten besoetan bilatzea.
Guztiz fidagarria ez bada ere,
amildegia erakargarritasuna
areagotzen duten sirena kantue-
tatik salba gaitzakete eta horrela
inork ez gaitu molestatuko gure
hilobietan argizariak, loreak edo
botilak jarritz, hilik egon arren
mitoa izatea oso lan astuna bila-
katzen ari baita.

JOXEAN APEZTEGIA

GUERE AUKERAK

ERAKUSKETAK

'Amazonia, azken paradisu' izeneko erakusketa zabalik dago Iruñean apirilaren 24a arte. La Caixak antolatuta eta Iruñeko udalaren laguntzarekin, Gotorlekuko aretoan dago ikusgai. As-teheneetik larunbatera arratsaldean dago zabalik, 18.30etatik 20.30ak arte.

Igor Mitoraj eskultorearen erakusketa zabalik dago Iruñean, Nafarroako Museoaren aretoan, maiatzaren 8a arte. Lan egunetan goizeko 10.00etatik 14.00etara eta arratsaldeko 17.00etatik 19.00etara ikus daitezke eta jai egunetan goizez bakarrik. Astelehenetan itxita dago.

MINTZALDIAK

'Euskararen Legearen aldaketa' gaiari buruzko hitzaldi-etzabaida izanen da gaur, apirilak 15, Nafarroako Unibertsitate Publikoan, 012 ikasgelan. Ikasle Abertzaleak-ek antolatua, HB, EA eta IUko parlamentariak hartuko dute parte. Eguerdiko 12.00etan hasiko da.

'Emakumea Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen ikuspuntutik' izenburuko mintzaldia eskainiko du heldu den ostegunean, apirilak 21, Maite Garcia gizarte langileak. Altsasuko Emakumearen Bilguneak antolatuta, arratsaldeko 17.00etan hasiko da, Domingo Lumbier ikastetxean.

BERTSO SAIOAK

Jon Sarasua, Xabier Amuriza eta Unai Iturriaga bertsolarien emanaldia izanen da gaur ostirala, apirilak 15, Tafallako 'Pasadizo' jatetxean. Bertso afaria izanen da, gaueko 22.00etatik aurrera, Tafallako Ikastolak eta AEKk antolatutik.

Andoni Egaña eta Sebastian Lizaso bertsolariak ariko dira bihar larunbata, apirilak 16, Beruete herrian, bertan antolatu de bertso afari batean. Gaueko 22.00etatik aurrera hasiko dira.

MUSIKA

'E.H. Sukarra', 'Parabellum' eta 'Urtz' musika taldeek kontzertua eskainiko dute bihar larunbata, apirilak 16, Lesakako pilotalekuan. Gaueko 22.00etan hasita, sarrerak 1.000 pezetan salduko dituzte.

'Zup' eta 'Noise Hole' taldeen kontzertua izanen da bihar, Berako Eztegarra pilotalekuan. Gaueko 22.00etan hasiko da.

NAFAR KRONIKA

JON ALONSO

Besteagoa

A zer pareta, Bata eta Bestea. *Besteagoekin* ohituta, gu. Euskalerria Irratia —ba al da *besteagorik?*— entzuteko ohitura duenak bazekien, hilabete batzuk direla, Ruandan gertatutakoa gertatu egingo zela: noiztik eta Mikel Bujanda (a) 'Berazeta-k' Goizuetako Etxeberria medikuari elkarrizketa egin zionetik, hain zuzen, goizuetarak, nahiko eskarmentua

edukirik, arras garbi utzi baitzuen zer espero zitekeen munduko alde apartatu hartan. Etxeberriak euskaraz jardun zuen, poliki. Eskatu egingo nioke, *Batean* polemika zaharkitu maltzurri bidea emanez libertitzen denari, esateko ia zer euskara-klasean hitz egin zigun Nembako medikuak, batuan ala euskalkian. Eskatu egingo nioke ez baneki, urte luuuuuzak direla, parteak kontrajartzea osotasuna ukatzeko estrategiaren zati bat baizik ez dela, eskatu

gingo nioke ez duela inongo euskarazko jardunik ententzen ez baneki. Esan beharrik ere ez zegoen. *Euskaraz* jardun zuen, hor dago koska.



Lapidaziorik merezi ez zuen *Bestean*, itxura zertxobait gehiago gordetzeagatik ere —euskarari buruz ari naiz, jakina— antzeko zerbait gertatuko ote den beldur naiz; eman diezaiozun, hala ere, errugabetasun presuntzioa —euskarari buruz—, konfidantza hilabete batzuk, beraiek Iribarreni ukatu diotena, esate batera. Haatik, *Besteagoen* esku geratuko da, beti ere, Ruandan ibiliko bide den serora euskaldun napar horren testigantza bil-

tzeta: baietz hilabete baino lehenago Kike 'Tabeno' Diez de Ultzurrunek eta Reyes Ilintxetak bilatu eta elkarrizketatu, azkenean hala-

korik bada eta larruazala salbo jartzen badu behintzat; ministeritzak zeregin larriagoak baititu gure izeba serorak oihaetik ateratzen ibiltzea baino, eta ez da harritzekoa: Ruandan ere banaketxeak eta horrelako gauzak izango dira, zer uste zenuen, bada. Bestalde, ikusteko dago bat baino gehiago serorak eta orangutanak bereizteko gai ote den.

A zer pareta, *Bata* eta *Bestea*. Eta hala ere, *Besteagoak* maite, guk. *Besteagoak* eta bestelakoak.

ASTEKO PERTSONAIK



Oscar Navascues
Uharteko gaztea

O rain dela ia bi urte joan zen Oscar Navascues Uharteko gaztea Melillara soldadutza egitera. Joan aurretik bazituen arazo ugari, fisikoak —eskoliosis larria— nahiz psikologikoak, baina ez zen libratu, horretarako ahaleginak egin bazituen ere. Hiru hilabete eman zituen bertan, jasan ezinezko egoeran, eta irailan aldegitara erabaki zuen, inoren baimenik gabe. Hona itzuli zenean ez ziren, ordea, arazoak bukatu. Hala ere, publikoki salatu zuen jasadako egoera eta bi urteko eszedentzia eman zioten. Aste honetan gerra kontseilua egin diote Sevillan Epaitegi Militarrean eta fiskalak hiru hilabeteko kartzela zigorra eskatu du. Ez du kartzelara joan behar izango, baina litekeena da epaiaren berri izan ostean defentsak errekurtsioa aurkeztea.



Maria Elena Adot
Misiolaria

Ruandan gertatutako istilu larrien erdian izan da herenegun arte Maria Elena Adot misiolari nafarra. Han gertatutakoa «izugarria» izan dela azaldu zuen. «Bilera genuen Vita et Pax kongregazioko kideek, espainiarrak eta Ruandakoak, presidentea hil zutenean. Hurrengo egunean, goizaldean, sartu ziren, banatu gintuzten, alde batera espainiarrak eta bestera Ruandakoak. Hango guztiak hil zituzten, tutsiak eta hutuak, guztira hamazazpi eta gure taldeko zortzi». Hildakoak tiroen artean lurperatu zituzten. «Beldur ginen, hasieran uste genuen ez zela hain gogorra izanen baina gero, ikusi ostean, aldegin behar izan genuen». Egoera larria da oso Ruandan, eta misiolari hau, bertan 24 urte eman ondoren, Iruñera itzuli da aste honetan.

AHAZTU GABE!

Natur astea

Natura eta Mendiaren Astea antolatu du datorren asterako Txantreako Zutarri Gazte Taldeak. Igandean, Larrau mendatea-Belagua mendi ibilaldia antolatu dute. Astelehenean, 'Natura Nafarroan' gaiari buruzko mintzaldia eskainiko du Antonio Munilla Gurelur taldeko kideak, Virgen del Camino Institutuan, arratsaldeko 19.30etan. Asteartean, espeleologiari buruzko diapositiben emanaldia izanen da Armonia Txantreana Peñaren egoitzan, hau ere arratsaldeko 19.30etan. Apirilaren 20an, asteazkenean, 'Ekologia egunez egun: zer egin dezakegu naturaren alde gure etxean?' mintzaldia emanen du LANE talde ekologistako kide batek, eta ostegunean 'BEX-Everest Espedizioa' gaia landuko du Pitxi Egillor mendigoizaleak, aipatutako Institutoan eta ordu berean, bi egunetan. 'Nafarroako ardi-bideak, Naturan ibiltzeko modu bat' izanen da ostiralean aztertuko den gaia, Ramon Eloseggi adituak bideratua. Asteari amaiera emateko bi ekitaldi antolatu dituzte, apirilak 24 eta 27an burutuko direnak: Urbasako mendizerran ibilaldia igandean eta eskaladari buruzko proiektio bat asteartean.

jenero xumekoak

Burua bero, oinak hotz

Burua bero, oinak hotz. Ze erreztasun dudan hitzekin, panpox. Baina ez naun engainatzen. Burua bero, oinak hotz. Mugatik hagitz hurbil bizi haiz eta nil burua bero, oinak hotz.

ELIAS SARASA - ERRO

ADI!

EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.4

Egunero, astelehenetik ostiralera, 'Zokobetailu' goizeko 10.00etatik 11.00etara.

XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 20.00etati 22.00etara... 'Karakola segi hola' gazteendako saioa.

ARALAR IRRATIA FM 106.2

Astean zehar 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkarrizketak.

KARRAPE IRRATIA FM 107.8

Astean zehar, 12.20etatik 12.35etara 'Gauza guztien gaitetik' edertasuna eta osasuna, sukaldaritzan, ohiturak...



Iruñea

Navarreviako iturritik

Juan Kruz Lakasta

Euskadi metalikoaz

Udaberria heldu da Corte In- glesera. Iruñean, baina, ez dugu inolako aldaketarik nabari, agian Corte Inglesik ez daukagula eta. Niri behintzat, behatzak zapate- tan lehen bezainbeste hozten zaizkit lanerako bidean, eta be- larriak lehen adina gogortu eta gorritzen zaizkit. Baldin eta zor- te on apurra izaten badugu, San- ferminen atarian antzemanen di- tugu eguraldi aldaketaren lehen aztarnak. Argi dago, beraz, duela zenbait urte gogor eta gogoz saiatu baginen ere, Euskadi ez dela oraingoz libre eta tropikala. Ez da bere buruaren jabe, ezta burugabea ere, eta Gernikako ar- bola eta Diputazioko sequoia ez dira palmera lirain bihurtu. Ka- ben dena!

Larunbat gauean Berriozarko pilotalekuan elkartu ginenok aski ongi somatu genuen hori. AEKren gau-pasa izan zen bertan. Antolakuntza primerakoa, eta benilazioa maila gorenekoa. Ni, zorionez, berandu samar ai- legatu nintzen, eta hirugarren graduko izozketak besterik ez daukat. Koadrilako bat hasie- ratik izan zen bertan, Su Ta Gar ikusten, eta Zaragozan dago



orain, izoztuentzako ospitalean.

Argi dago, metalikoak gara gu, eta ez tropikalak. Azken bo- ladan doinu metalikoak besterik ez dira entzuten Iruñerriko kon- tzertuetan. Ez da gau-pasa baka- rra ere egiten—larunbatekoa ho- rren lekuko— Su Ta Gar—Zu Ta Gar, joan den egunean Bes- tean idazten zuteneguz— eta EH Sukarra bertan izan gabe. Ha- maika aldiz ikusi behar izan ditut Su Ta Garreko gitarra joleak euren koreografia taularatzen: bat, bi, hiru eta salto, bat, bi, hiru eta kruzea, bat, bi, hiru, eta abar. Halaber, buruz ikasi ditut EH Sukarrakoen oihu guziak: aupa peña! U! A! Ua! Uaaaa! Eta fa- borez, aski da! Neguan zehar ha- maika gau-pasa egiten da, eta jasangaitza da guzietan talde be- rak ikustea. Eskerrak udaberria- rekin batera—eguraldia alda- tzen ez bada ere—bestelako jaiak heltzen direla. Aurki Ri- card Eguna, ondoren Herri Ur- rats, eta gero Iruritako jaiak, eta Etxauri-koak...eta abar luzea.

Eguzkia ekarri zuen San Migelek

PATXI ULAIAR / IRUÑEA

Astehenean hasi zuen Nafa- roan zehar urtero egiten duen ibilbidea Aralarko Aingeruaren irudiak, eta oraingoa eguzkia- rekin. Takonerako lorategi on- doan betiko harrera beroa egin zion jendeak irudiari, eta Mecako aingerutxoarekin topatu ondo- ren, 'Agur Jaunak' kanta jo zuten txistulariek. Ondoren XVIII. mendean irudia ostu zuten lapu- rren alde otoi egin zuten eta San Nicolas elizara hurbildu ziren irudiak.

Horrela hasi zen ibilaldia, tra- dizioz zamarrik, bistan da. Iru- ñea osoa ezezik Nafarroako ipa- rraldea ere kurrituko du; igan- dean izanen du azken eguna Iru- ñerrian, eta hortik aurrera herriz herri ariko da San Migel, gaixoak bedeinkatzen. Gaur Nafarroako Ospitalean hasiko da, goizeko 8.45etan, eta ondoren Santa Catalinako eskolan izanen da, eguerdian. Hortik Osasun Publi- kiko Institutua eta Iruñeko Au- rrezki Kutxa bisitatu ondoren, Misericordia Etxera joanen da, 13.30etan. Arratsaldean Arrondo Klinikara joanen da irudia, eta 5.00etan Angelicas bisitatuko di- tu. Ondoren, Salestarrak, Kar- meldar Aitak eta, 19.15etan, Frantzisko Xabier parrokian izanen da. Hortik Anaitasunara eta 21.15etan Auroroak izanen dira. Larunbatean falta diren pa-



Aspaldixkoko da Nafarroa osoan irudiari harrera egiteko ohitura.

rorriek eta jesuitek jasoko dute bisita, eta igandean, eguerdian, agurra emanen zaio San Migeli, San Lorenzon. Orduan abestuko dira ohizko koplak: 'Agur Mikel Aingeru/ Agintari haundia/ izan beti tronutzat/ Aralar mendia'. Ez da ezaguna noiztik datorren ohitura, baina Erdi Arokoa da nonbait. Orduan sortu zen Ara- larko kofradia, eta Nafarroan ze-

har San Migel patroia zuten mi- laka lagun biltzen zuten. Hori- ek hasi ziren, tradizioak dienez, irudia herri guztietara urtean be- hin jaisteko ohitura, eta udabe- rriaren hasieran irauten duen ga- rrantzitsuenetakoa da egun. San Migelen bertan ospatzen den San Migel egunean Nafarroatik eze- zik Gipuzkoatik ere fededun franko hurbiltzen da.

Bertiz

Landa turismoari buruzko jardunaldiak

IRUÑEA

Atzo zabaldu zen Bertizen ne- kazaritza produktuak bultzatu eta merkaturatzeko mintegia, Es- painia, Frantzia eta Portugalgo sustapen agentzien partaidetza- rekin. Bertan azken urteotan merkaturatzeko landu den estra- tegia aztertuko da, hau da, pro- duktua nola saldu. Horretarako, bihar arte, hainbat esperientzia azalduko dira, eta Bertiz ingu- ruan dagoen inguru ezagutara- ziko zaie bisitariei. Halaber, jar- dunaldi hauen barruan, Nafa- rroako Landa Turismoaren Bu- legoaren aurtengo ekintzak azal- du zituen atzo Pedro Perez Uriz Bertizko Partzuergoko presi- denteak. Garrantzitsuenak, Hila- ren 21tik 24ra bitarte Bartzelo- nan eta maiatzaren 4tik 8ra bitar- te Bilbon egingo diren Turismo Ferietan izanen den partaidetza. Jardunaldiak igandean amaituko dira, Baztango udaletxean arra- tsaldeko zortzietan egingo den ekitaldian.

Bera

Urruñarekin harremanak sustatzeko festa eguna ospatuko da bihar

P.U. / BERA

Urruñaren eta Beraren arteko harremanen eguna ospatuko da bihar larunbata, hilak 16, Beran, sortu berria den Erentzu Elkar- teak antolatuta. Arratsaldeko lauretan rugby partidua izanen da Agerrako zelaian, Berako eta Urruñako taldeen artean, eta gero berendu edo krakada izanen da, lamotenean. Ondoren Herburu- ko Txaranga kalez kale ariko da, eta gauz Urruñako rock talde batek joko du herriko ostatu ba- tean.

Harremanen egunak egiteko ideia bi herrietako taldeetatik sortu da, elkarrengandik gertu bezain urrun daudela ohartu zi- renean. Hau da, ez dira, inondik inora, Lesakarekin, kasu, dauden harremanak, muga tartean dela- ko, hain zuzen. Orduan hasi ziren taldeen arteko bilerak egiten, eta egun hiru arlotan egiten dute lan:

kultur, kirol eta ingurugiro arloet- an. Lankidetzaren sendotzeko Erentzu Elkartea sortzea erabaki zuten, eta bi aste barru inguru aurkeztuko da ofizialki. Elkarte berrian Berako Herriko Etxeko eta Gure Txoko Elkarteko lagu- nak dira, eta Urruñatik Udaleko ordezkariak eta Hazia eta Bertso- li elkartekoak. Hala ere, talde ho- netan edonor sar daiteke, inongo elkartetakoa ez izanda ere.

Haien asmoa da banatzen di- tuzten gauzak ezabatzea, fisikoki ezezik kulturalki ere gertu izate- ko. Horretarako gauza franko al- datu behar dela dio Bittori Tei- letxea Erentzuko partaideak. «Ondean bizi gara, baina ez dugu elkar ezagutzen. Bi herriak beste kulturek menperatu dituzte, eta eurek eta guk baditugu kutsuak. Horretan ibili beharko dugu». Ibiltzean zer ikasi badute, lehen- dabiziko harremanetan topatu baitituzte ezberdintasunak. «Bi-

txia da nola aldatzen diren gau- zak, mugaz zein aldetatik begi- ratzen den, eta menua egiteko, adibidez, baditugu zailtasunak, haiek ohitura desberdinak dituz- telako. Hau da, prezeski, gainditu behar duguna». Mugak hausteko beharra, baina, barneratuagoa omen dute urruñarrek, beraien ideia izan baitzen elkartea sor- tzea, eta beraiena baita interes handiena. «Beran jendea orain- dik ez da ohartu honek daukan garrantziaz» dio Bittorik, «Urruñan jabetuagoak dira».

GOIZANE
JATETXE BEGETARIANO
 Irularrea kalea, 6-8 (Urgentzien aurrean),
 Virgen del Camino Ospitalea Tf: 948-26 39 27 IRUÑEA
Te areto integrala

JUAN KRUIZ LAKASTA / IRUÑEA

Erriberri Nafarroako Jaialdie-
tatik landa geratuko da aurten.
Nafarroako Gobernuak erabakia
hartuta dauka, oraingoz baieztan-
pen ofizialik egin ez badu ere.
Alliren Gobernuak —Javier
Markotegi Hezkuntza eta Kultu-
ra Kontseilariaren ahotik— da-
goeneko erabakiaren berri eman
dio Erriberriko Udalari, Jesus
Barde Erriberriko Kultura zine-
gotziak Nafarkariari baieztatu
dionez. UPN alderdiko zinego-
tziaren hitzetan, «Nafarroako
Gobernuak erabakia hartuta
dauka, eta haren asmoa da aurten,
Erriberri, jaialdien barnean kultu-
rekintza bakar bat ere ez izatea,
hau da, Erriberri jaialdietatik
kanpo uztea».

Gauzak horrela, Nafarroako
Jaialdiek 12 urte beteko duten
honetan euren jaioterrian, gazte-
luko harresien pean ez da abuz-
tuan goi mailako kultur ekitaldi
bakar bat ere izanen. Gobernuak,
Erriberriko Udalari azalpenak
emateko orduan, bi ar-
gudio nagusi eman ditu,
beti ere Barderen arabe-
ra. Lehenik eta behin,
politika aldaketa jaial-
dien antolakuntzan.
Deszentralizazioa bul-
tzatu nahi dute eta, ha-
laber, zenbait ekitaldi
orain arte jaialdiak go-

Juan Cruz
Alliren gober-
nuak bi argudio
nagusi erabili
ditu Erriberri
Jaialdirik gabe
uzteko: batetik
deszentraliza-
zioa eta beste-
tik eguraldia.

zatu ez dituzten herrie-
tara eraman, Mendial-
dera esaterako. Bestalde,
Erriberri abuztuan na-
gusi den eguraldi al-
dakorra. Erriberriko
ekitaldiak aterberik gabeko es-
zenatokian egiten ziren, eta egu-
raldi kaskarra zela medio behin
baino gehiagotan bertan behera
utzi behar izan dira ikuskizunak.

Gobernuaren argudioek, or-
dea, ez dute Erriberriko kon-
bentzitzerik lortu. Jaialdiak era-
bakigarriak izan dira herriaren
garapenean, eta herritarrak ez
daude bat-batean sostengu gar-
rantzitsu hori galtzeko prest.
Herriko Udalak afera aztertze-
ko xedarekin bilkura egingen du da-
torren astean. Orduan jakinen da
Nafarroako Gobernuak hartuta-
ko erabakiaren inguruan Erribe-
rriko Udalak izanen duen jarrera
zehatza. Bien bitartean, Jesus
Barde zinegotzi erregionalistak
jarreraren nondik norakoak
zeintzuk izan daitezkeen aurre-
ratu dio Nafarkariari. Aurrerapen
horren arabera, «Udalak seguru
asko gogor salatuko du erabakia,

Nafarroako Jaialdiek Valentin Redin izan zuten aita, eta Erriberri
jaioterri. Aita aspaldian galdu zuten, eta aurten, Tomas Yerro ai-
taordearen eskutik, alde egingen dute jaioterrik. Hamabi urte dauz-
katela, beraz, Jaialdiek agur esan beharko diote euren jaioterriari.

Erriberri adio

Erriberri ezin baita bat-batean
jaialdirik gabe geratu».

Jesus Barderen irudikoz, des-
zentralizazioaren aitzakiaz Go-
bernuak jaialdiak Elizondora
eramateko asmoa dauka, «eta ez
dago hori onartzerik, ez baita zi-
legi norbait biluzik uztea beste
norbait janzteko». Esan bezala,
Iruñeko Gobernuak Erriberriko
Udalari emandako azalpenetan,
eguraldia izan da oinarritzko ar-
gudioetariko bat, eta zinegotzi
erregionalista ez dago argudio
hori onartzeko prest. «Hemen
eguraldia aldakorra dela diote,

Elizondon
gingo dira
zenbait ekital-
di, baina Baz-
tango herria ez
da izanen, Erri-
berri zen beza-
la, Jaialdien ar-
datza.

baina abuztuan Erriberri euria
ari duenean ez dut pentsatu ere
egin nahi Elizondon zer gertatzen
den».

Nafarroako Gobernuak, halaber,
Erriberriko Gaztelua esku pri-
batuetan uzteko asmoa dauka.
Hori egin aurretik, 30 milioi gas-
tatuko ditu gaztelua berritzen.
Javier Markotegi Nafarroako
Gobernuko Kultura kontseila-
riak horren berri eman dio jada-
nik Erriberriko Udalari. Berria
ematerakoan jaialdien lekualda-
ketak eraginen dizkien kalteak
gaztelua ikustera joanen diren

turisten bitartez berdinduko di-
tuztela argudiatu du kontseilari
erregionalistak. Barde zinego-
tziaren iritziz, argudioa ez da
onargarria. «Pribatizatzen badute
inork ez daki zer gertatuko den,
eta ez dago horretaz hitz egite-
rik». Erriberriko politikariaren
arabera, gauza bakarra dago argi:
«Jaialdiek garrantzi handia izan
dute herriaren garapenean, eta
jaialdirik gabe uzte bagaituzte
diru asko galduko duela herriko
ostalaritzak. Kolpe handia izanen
da».

Jesus Bardek Nafarroako Gober-
nuak Erriberriko ikuskizunak
Elizondora eramateko asmoa
duela iritzi badio ere, ez dirudi
horrela gertatuko denik. Nafar-
kariak jakin ahal izan duenez,
aurten Elizondon izanen dira zen-
bait ekitaldi, baina Elizondo ez da
izanen, Erriberri zen bezala,
jaialdien ardatza. Martin Garde
Baztango Udaleko HBko Kultura
zinegotziak adierazi duenez,
duela hilabete t'erdia Baztango
udaletxean izan zuten estreina-

koz jaialdien antola-
tzaileen berri. «Ardura-
dun batek deitu zigun, eta
zein areto eta lurralde
dauzkagun galdetu zi-
gun, aurten karpa antze-
ko zerbait paratzeko». Duela bi
aste, beste ardu-
radun baten deia jaso
zuten. «Azaldu zigute-

Nafarroako
Gobernuak
Erriberriko
Gaztelua pri-
batizatze-
ko as-
moa dauka.
Hori egin au-
rretik, 50 milioi
pezeta gasta-
tuko du bertan.

nez, hemen egingo diren
ekitaldiak gure kultura-
ren ingurura loturatuta
izango dira, pentsatzen
dut gure euskal kultu-
rarekin izango dela.

Iazko antolaketa bera ez dela
izango, zabaldu egingo dela beste
lurraldeetara».

Dena dela, jaialdiak ez dira
Elizondora kasualitatez ailega-
tuko. Garde duela hiru urte kar-
gura heldu zenean Mendialdea
oro har Jaialdietatik kanpo gera-
tzen zela eta kezkatu, bilera
izan zuen Principe de Viana era-
kundero buruarekin. «Alkatea
eta biok Javier Zubiaurrekin egon
ginen, eta agertu nuen guk ge-
neukan kezka. Iaz ere mintzatu
ginen, eta Nafarroako Jaialdien
emaitzak aztertuko zituztela esan
ziguten. Aurten, azkenik, ekital-
diak izanen dira bertan. Elizondo
ez da izango ekitaldi hauen buru,
baina Elizondon egingo dira eki-
taldi batzuk. Gure lurraldean uda
aldera badago kanpoko popula-
zio bat, eta interesgarria izango
da jaialdiak zabaltzea beste lu-
rraldeetara».



El Brujo, Erriberri eskainitako eszena batean.

JOXE LACALLE

Yerro, agurraren eragilea

J.K.L. / IRUÑEA

■ Tomas Yerro Nafarroako
Jaialdietako Zuzendariak prent-
saurrekoa eman du heldu den
aste hasieran, aurtengo jaialdien
egitaraua aurkezteko. Horren
aurretik, Yerrok ez du ofizialki
baieztatu nahi izan Erriberri
ekitaldirik ez dela antolatuko.
Haatik, implizituki onartu zuen
Nafarkariarekin izandako elka-
rrizketan. «Urtero, Nafarroako
Jaialdien egitaraua osatzeko or-
duan, urte horretan egitarauan
parte hartuko duten eta aurreko
urtean parte hartu duten udalekin

hitz egiten dugu. Udalek, beraz,
jadanik badakite jaialdietan parte
hartuko duten ala ez. Jakin bada-
kit zenbait filtrazio gertatu direla
kaltetutako zenbait udaletan. Nik
ez dut esanen filtrazio horiek egia
esaten duten ala ez, baina segu-
ruenik ez dabilta oker».

Aldi berean, aurtengo Nafa-
rroako Jaialdietako egitarauan
aldaketa franko izanen direla ira-
garri zuen Yerrok. «Oso ongi az-
tertu ditugu azken urteotako
emaitzak, eta horietan oinarritu-
rik aldaketa askotxo egin ditugu.
Hori da iragar dezakedan gauza
bakarra, egitarauan aldaketa asko

izanen direla, eta jaialdiak des-
zentralizatze asmoa dugula». Duela bi urte, Yerro jaialdietako
zuzendari izan zen lehen urtean
hain zuzen ere, jaialdietako eki-
taldietara hurbildu ziren ikusleen
artein inkesta egin zuen Principe
de Viana erakundeak. Yerroren
arabera, inkesta horretatik atera-
tako ondorioak aintzat hartu dira
aurtengo egitaraua osatzeko or-
duan. Bestalde, Erriberriko pri-
batizazioaz ez zuen hitz egin nahi
izan. Arlo horretaz mintzatzeko
pertsona apropos bakarra Javier
Markotegi Kultura kontseilari
dela adierazi zuen.

Nafarroaren Eguna markatzen duen Baigorriko Kultur Astea dator berriro, bailararen bizi nahiaren ume, udaberriko lehen egunetan. Musika, festa, ondarea, ihizia, arrantza, literatura Oxobirekin eta Haurren Eguna, kultur biziaren paleta zabalaren eskaintzen saiatuko dira. Atzo Iruñean eta gaur Baigorri bi Nafarroak bildu ere nahi dituen ekitaldi beroa aurkeztu da.

Baigorriko Kultur Astea berriro

LETXEZAHARRETA / BAIONA

Ez du aurten Kultur Asteak gai edo pertsonaia berezirik lematzat, iaz Xalbador ukan zuen bezala. Enrike Zelaia akordeoi jole ospetsuak irekiko du heldu den larunbatean Baigorriko Kultur Astea errezital bat eskainiz, bere ahaltasun harrigarriak erakutsiz. Berdin gaurko euskal kultura zabalaren, probintzia guzietako musikak apaindua duenaren irudia eskainiz sarrera baten antza hartzen du.

Enrike Zelaia disko berria

tuko da Baigorri.

Astelehena, iragan festaren bi-haramun lasaia gertatuko da, beti bezala. Asteartean hasiko da Aste bakoitzari doakion 'gogoeta aldia', kultur gai ezberdinen inguruan. Baigorri, Bixentenea osatu biltokian 'Laminen Altxorra' aurkeztuko du Lauburu elkarteak. 25 urte hauetan Ipar Euskal Herriko ondarearen babesten eta ezagutarazten ari den elkarteak, diapositiboekin eta hitzaldiekin gure herrietako ondare miragarria erakutsiko du, honen ezagutzarako deiak eginez.

tzak garrantzia baitute. Jakina ere 'ihiztari eta arrantzaleek' hauteskundetarako zerrenda autonomoa egin zutela, alderdi orotarik aparte. Federakunde, administrazio eta berdin ekologistak mintzatuko dira, gai doi bat minberaz.

Oxobi idazle zena, Bidarrain jaio zena, ostiral arratsez Orzaizen omenduko dute. Ez hainbat bere biziaz eta obraz ohizko hitzaldi sabantak entzunez baina gehienbat bere obrako zatiak irakurtuz eta batez ere kantatuz, 'Gau Literario' berezian. Etorri

beharrak dira Baigorriko kantariak, Laka eta bere iloba, Marti-korena, Antxordoki anaiak, Daniel Aire eta Gerard Ihidoi, Aire ahizpak, Magali Zubillaga, Jojo eta Ramuntxo, Txomin Hegi, Anje Duhalde, Mikel Erramuzpe. Ainhoa Behola, Oxobiren obra osoaren argitalpena zuzentzen duena hor izango da ere.

Larunbat arratsean Xirula Mirula Beskoitzeko Oinak Arin dantza taldearen inguruan osatu haurren ikuskaria Baigorriko ezker paretan emango da. Gero gau pasa bat da Bixentenean.

Oxobi idazle zena, Bidarrain jaioa, ostiral arratsean omenduko dute Orzaizen.

Asteko egitaraua

Apirilaren 23a, larunbata, Baigorriko elizan, 22.00etan: Enrike Zelaiaren errezitala.

Apirilaren 24a, igandea, Baigorri: Nafarroaren Eguna. 10.00 Eskulan erakusketa, eliz aitzinean.

13.00 Bazkaria Islan.
16.00 Behereko plazan: Iruñeko dantzariak, Kazkabarra, bertsolariak.

Arratsez, dantzaldia Adarzarekin.

Apirilaren 26a, asteartea, Baigorri, Bixentenea, 21.00etan: Laminen Altxorra, euskal ondareaz Lauburu elkartearekin.

Apirilaren 27a, asteazkena, Bidarrain: Haurren Eguna, kaiak, eskalada eta zaldiz ibiltzea.

Apirilaren 27a, asteazkena, Al-duden, 21.00etan: Mahai ingurua ihizi eta arrantzaz.

Apirilaren 28a, osteguna, Anauzen, besta salan 21.00etan: Koldo Ameztoti kondalaria 'Lau Haizeetara' ipuinaldiarekin.

Apirilaren 29a, ostirala, Ortzaizen, 21.00etan: Oxobi idazle zenaren obraren inguruko arratsa kantariekin.

Apirilaren 30a, larunbata, Baigorri, ezker paretan: Xirula Mirula ikuskaria, haurren emanaldia.

Maiatzaren 1a, igandea, Lasako sagardotegian: Basaizea elkartearen bazkaria.



Baigorriko kaleak nafarrek beteko dituzte aurten ere.

prestatzen ari da gai horretan hain aberatsa den Nafarroaren gaia-ekin. Azkenarekin Zuberoari horrelako omenaldi hunkigarria eskaini zuen. Nafarroako distira, melankolia edo alaitasunarekin badauka mami erraldoia. Bere errezitalak jendearen miragarri izatekoa badu. Baigorriko elizan 22.00etan zuzen iraganen da, larunbat arratseko ohizko meza bukatu ondoren.

Igandea, apirilaren 24a, Nafarroaren Eguna da, asteko ohizko egun ospetsuena, mugaz bi aldeetako nafarren bilaldi eguna. Festa egun handiaren mentura da berriro. Aurreko bi urteetan euriak doi bat trabatu zuen Eguna baina jendea hor zen. Nafarroako Hiri Nagusi egun batez bilaka-

OXOBIRI OMENALDIA ORZAIZEN

Bidarrain berriro 'Haurren Eguna-ren' eszenarioa izanen da. Iaz hala gertatu beharra zen baina eguraldi larriak gauzak aldatu zituen: Sarako harpeen bisitaldia egin zen kanpoan pentsatuak ziren kirol saioak egin ordez. Aurten saio berriak eguzki pixka bat izanen duela espero da. Horrela zaldia, kaiaka edo eskalada egingo dute. Haur kopurua 80tara mugatu da denek parte hartzeko aukera ukaiteko.


Ihizia eta arrantza eztabaidagai gertatuko dira Alduden asteazken arratsean 21.00etan herriko biltokian. Ez da gai arrunta alde horretan, ihiztiak eta arran-

urtetik urtera. Dantza taldeen jantzi apainduak Nafarroako kaleidosoko aberats miragarria marraztu dute ere beti arratsaldeko ikuskarian, Behereko Plazan. Aurtengo egunaren mugimendua goiz ondarrean hasiko da elizaren inguruan, mutxikoa, mutil dantza eta besteekin. Elizaren saihetsean, artesauen tokia da berriz. Aurreko urteetan euriak trabatu zituen doi bat eta are gehiago liburu edo EGUNKARIAREN saltzaileak.

Nafarroaren Eguna 24an

LE. / BAIONA

Islako bazkari handia, Irulegi-ko Irratikoek animatu ekitaldia, Nafarroako parte zabalera hedatzen da uhinen bidez, Xorroxin Irratiak lauzkaturik. Arratsaldeko ikuskariak plazan jendea eta batez ere haurrak bilduko ditu. Dantza ikuskari ohizkoan Iruñeko udal taldea agertuko da. Kazkabarra musika taldearen ikuskaria egingo da lehendabiziko aldiz. Nafarroako lau bertsolari gazte kantuz ariko dira ere. uste da Bittor Elizagoien, Estitxu eta besteak hor egongo direla.



Nafarroako Gazte Txapelketako laugarren ihardunaldiko partida, 1994ko apirilaren 7an jokatu.

Unai Garbisu (2.315 ELOkoa, 1. rankingean)—Iñaki Rebole (2.000 ELOkoa, 2. rankingean).

1.e4, c5; 2.Zf3, Zc6; 3.d4, d4; 4.Zd4, Zf6; 5.Zc3, e5; 6.dZ-b5, d6; 7.Ag5, a6; 8.Za3, b5; 9.Af6, f6; 10.Zd5, Ag7; 11.Ad3, Ze7; 12.Ze7, De7; 13.c3, f5; 14.0-0, 0-0; 15.Zc2, f4; 16.a4, a4; 17.Ga4, Ab7; 18.Ge1, Dd7; 19.Ga5, f5; 20.Zb4, e4; 21.Ae4, Ae4; 22.Ge4, f3. Ikusi Koadroa. Erdigunea txuriena da. Beltzen eraso, ordea, aterabiderik gabea.

23.Gd5, Df5; 24.Df3, Df3; 25.f3, Gf3; 26.Gd6, a5; 27.Zc6, a4; 28.Gg4, Gf4; 29.Gg3, Ef8; 30.Zb4, Gf7; 31.gG-d3, Af6; 32.Gf3, Ae7; 33.Gf7 xa, Ef7; 34.Gb6, Ab4; 35.Gb4, a3; 36.a3, Ga3; 37.Gb7 xa, Ee6; 38.Gc7, Ed6; 39.Gc8, Ga4; 40.c4, Ed7; 41.Gc5, Ed6; 42.Gc8, Ed7; 43.Gh8, Gc4; 44.Gh7 xa, Ee6; 45.Gg7, Ef6; 46.Gg3, Ef5; 47.Eg2, Ga4; 48.Gg8, Gb4; 49.Ge8, Gh4; 50.h3, Gh7; 51.Gf8 xa, Eg5; 52.Eg3, Ga7; 53.h4 xa, Eg6; 54.Ge8, Ga3 xa; 55.f3, Ga5; 56.Gg8 xa, Eh5; 57.Gh8 xa, Eg6; 58.Ef2, Ga4; 59.h5 xa, Eg7; 60.Ge8, Ga5; 61.Ge6, Ef7; 62.Gh6, Eg7; 63.Gb6, Eh7; 64.Gg6, e4; 65.e4, Gh5; 66.Gg3, Eh6; 67.Ee3, Gg5; 68.Gg5, Eg5; 69.Ed4, Ef6; 70.Ed5. Posizioa hartuta dagoenez, beltzek etsi zuten.

Itsasoa: bizitza eta heriotza

Olatuak hondartza barrenean abiatzen dira, leku batean gelditu eta berriro itzultzen dira hondar eta zabar hondakinak utziz. Nahiz eta jakin zeintzuk diren bere mugak, olatuek beti jarraitzen dute sartzen eta jaisiten, lurrarekin daukatzen borroka irabazi nahian. Haizeak zartada hotzak ematen dizkit aurpegian. Kai-txoriak itsao urdinaren gaintek dabilta hegan egiten. Ama, afaria egiten zihur aski, abesten dago. Itsasargiak pizten dira bapatean, itsasontzi galduei esku bat luzatu nahian. Nik jarraitzen du itsasoari begira.

Betidanik atsegin izan dut hondartzan eseritzea eta itsasoari begiratzea. Baita ere gustatzen zitzaidan maskorrek uretara botatzea. Milaka oroimen ekartzen dizkit burua ur masa handi honek. Nere familia betidanik izan da arraatzalea eta itsasoaren hizkera ezagutzen zuen. Bai, guretzat itsasoa gure bizitza da. Baina baita ere gure heriotza. Nere anaia eta aita ur azpiara joan ziren ekaineko ekaitz azpisuge batean. Oso traidorea baita itsasoa. Kontuz ibili berarekin! Batzutan mantso-mantso barrukaldeko zelai lurra bezalakoa, haize ixpirik gabe eta bestetan, bost metrotako olatu beldurgarriekin eta haizak halako abiadurarekin, ze batzutan ontzietako erdialdeko masta botatzen zuen izaugarritzko ondorio txarrak sortuta. Gutxienez dozena bat itsasontzi joan dira Lazoko haitzen kontra.

Baleontzi bat astiro-astiro sartzen da kaian gaua pasatzeko asmoz. Azken aldi honetan ez dago bale askorik eta garai onak joanak dira dagoeneko. Gainera berdeak



Igor Arroyo
(BARAÑAIN)

tuen begiak eta mantso-mantso itsaoko historia zaharrak kondatzen zizkigun. Aitona gaixoa! Hainbeste urte ekaitzei hortzak erakusten eta hona non ohteik erori eta buruhezurra apurtzen duen! Bizitzatik agurtzerako egunean, jende asko joan zen aitona nola lurperatzen zuten ikustera, oso maitatua bait zen aitona.

—Pedro, afaltzera etor hadi!

—Banoa ama.

Bai, itsaso gabe ezin ginatke bizi. Gertaera zoriontsu edo txarren lekuko izan da beti. Eta baita entzule zintzoa ere, sekretua gordeko zuela jakinez lasai hitzegin ahal zenionari. Eta jana ematen zigun.



edo holakoak deitzen dieten batzuek baleak harrapatzea ebekatu nahi digute. A, ze denbora haiek, baleak harrapatzeara irtezen ginenean! Egia esan ni bizpahiru aldiz bakarrik joan naiz eta baleak ia desagertuak zeudenean baina aitona ematen zizkidan historioak! Ikaragarriak ziren, eta neguan sutondoan elkartzen ginen familia osoa aitona entzutearren. Bere zakur zaharra oin artean zuela, sutan ipintzen zi-

Eguzkia gaueko bainuan sartu da, bere izpi gorrixkak itsasotik zabaltzen dituela. Argiak itzaltzen dira, leihoak itxi. Tximinetatik ateratzen zen ke sorta, xipi gris bat bihurtzen da. Olatuak gora eta behera dabilta. Bi hanken gainean jartzen naiz eta etxerantz abiatzen naiz eskuak poltikoan ditudala. Izara ilun bat herritik zabaldu da eta goian izarrak disdiraka dabilta. Olatuen soinuak. Itsasoarenak.

JUANTXO URDIROZ

Pixagura, dekorazio olerkiak gaizkileak eta Markalain(I)

Eugin holaxe kantatzen da Txingulu-mangulu kanta:

*Txingulu-mangulu
gure haurre nongo
ona bada etxeko
gaixtoa bada kanpoko
turrututu
Ferminendako.*

Larraintzarren, berriz:

*Xingulu-mangulu,
Ona bada, guretako.*

*Gaixtoa bada, kanporako.
Turrutt!*

Beran beste bertsio bat daukagu:

*Txangulu-mangulu
haur hau nongo,
ona bada guretako
gaixtoa bada Markalaingo,
ez dutela beharrik
badituztela franko.
Orduan, orduan,
putzu behiti botatzeko
ez, ez guretako.*



**Denboraren
buruan,
haurrak kanta
aditu bezain fite,
pixagale zuten
aitamek.**

Eta bukatzeko Igoako bertsioa:

*Txinguli-manguli.
Gure haurre nongo
Markalaingo txorrua (eta txorrua ere bai),
hura behera dihoa,
turrut-turrut-hitako.*

Ohi denez, ahozko literatura tokian tokiko bertsioan bizi da. Hala ere funtsean zeregin sozial bera daukate guztiek. Kanta hau ez da nonahi eta noiznahi kantatzekoa. Etxe barnean, hurrekiko giroan eta are gehiago esango dugu, propio sutondoan.

Pauloven legerari dagokio. Haurrari pixa eragiteko, txortxoriko jarri sutondoan, eta kantatzen ohi zitzaion. Gero pixa edo kaka errautsarekin estali eta sutara bota. Denboraren buruan haurrak kanta aditu bezain fite pixagale zuten aitamek.

Kanta hauetan pixarekin zer ikusirik duten onomatopeia estilatuak agertzen dira, **tturruttu** hori batez ere. Igoako bertsioa nabaria da horretan, **Markalaingo txorroa-txorrota, hura behera dihoa**. Pixa, guk dakigula, zentzu txarreko hitza da. Igoako bertsioan Markalaingo txorroa deritzaio. Metafora hori azaltzen saiatuko gara hurrengoan.



Asteartean egindako manifestaldian.

JOXE LACALLE

Grafikagintzako langileak lanera itzuliko dira gaur, 46 greba egun beteta. Norgehiagoka gogorra izan da, baina azkenean amore eman behar izan dute enpresariak: beren elkarte (Adegran) berregituratu eta hiru urteko lan hitzarmena sinatu dute. Lantegi gehienetan lan hitzarmenak oraindik negoziatzeko dauden honetan, akordioa grafikagintzako sektoreaz haratago doa, hilabete t'erdiko greba honek zer ikasia eman baitie langileei baina, batez ere, enpresariei.

46 egun lan hitzarmenaren eske

A.UNANUE / IRUNEA

Enpresariak eta langileen ordezkariak herenegun arratsaldean izenpetu zuten akordioa, Jose Maria Andueza Nafarroako Gobernuo Industria zuzendaria lekuko zutela. Langileen batzarrek atzo goizean eman zuten erabateko onespina eta, aldi berean, greba bertan behera utzi eta gaur lanera itzultzea erabaki zuten.

Langileak beren lehen helburua beteta itzuliko dira gaur lanera. Izan ere, lan hitzarmena Nafarroan bertan negoziatzeko eskaerak eragin zuten hilabete t'erdia iraun duen norgehiagoka. Hitzartu beharreko lan baldintzak bigarren mailan egon dira denbora guzti honetan; apenas aipatu dituen inork, langileak ez baitziren puntu erdiko edo osoko soldata igoera batengatik atera kalera, soldata igoera gainontzeko lan baldintzak Nafarroan bertan negoziatzeko eskubideari eusteagatik baizik.

Auziaren konponbideak are argiago utzi du hori, enpresari eta langileak mahai berean eseri direnean berehala jarri baitira ados.

Arazoa bestelakoa izan da, enpresariak ez zutela eseritzerik nahi, alegia. 1977tik zeukaten elkarte desegin zuten, Nafarroako negoziaketa sahiestu eta langileak Estatuko onartzerara behartzeko asmoz. Honek abantailak nabarmenak lituzke beraiantzat: soldata baxuagoak, lan ordu gehiago eta betebeharrak gutxiago (langileek euskaraz ikasteko erraztasunak, esate baterako).

Javier Lareki LABeko ordezkariaren iritziz, «enpresariak ez zituzten beren indarrak ongi neurtu». Dudarik gabe, ez zuten hain erantzun tinkoa espero langileen aldetik.

Langileek otsailaren 28an ekin zioten grebari eta eskatzen zutena lortu arte ez dute etsi. Deia bost sindikatuk egin zuten (LAB,

Langileek otsailaren 28an ekin zioten grebari eta eskatzen zutena lortu arte ez dute etsi.

UGT, CCOO, ELA eta USOk) eta, desadostasunen gainetik, batasuna nagusi izan da azken asteotan. Aste Santuan ere ez zuten atseden hartu. Gaztelu plaza bihurtu zuten beren eskaeren lekuko eta bertan egon ziren, goiz eta arratsalde, bost egunez.

Grebak iraun zuten bitartean hainbat aldiz bildu ziren Industria saileko buruekin eta zenbait enpresariarekin. Nafarroako Gobernauren ordezkariak ez zen emankorra izan, ordea. Martin Zabalza UGTko ordezkariaren esanetan, «utzikeria» egon da Angel Rodriguez San Vicente sailburuaren aldetik: «Gobernuaren jokaera oso epela izan da, ez dute deus egin geure lan esparruaren defentsan. Isilik egon dira eta ahoa zabaldu dutenean enpresarien aldeko adierazpenak egiteko izan da».

Azkenean inoren bitartekariak baino grebak berak bultzatu du akordioa. Nafarroako grafikagintza sektoreak 1.000 langile inguru biltzen ditu, 60 enpresatan, eta enpresa gehienak txikiak izanik, ezin zuten egoera hau luzaroan jasan.

Horretaz jabetuta, enpresariak amore eman zuten asteartean, egun bererako antolatua zegoen manifestaldia baino ordu batzuk lehenago. Enpresariak hiru urteko eskaintza egin zuten. Aurreakordio horren arabera, aurrean eta datorren urtean Kontsumo Prezio Indizea gehi puntu erdiko soldata igoerak izango dira. 1996an, berriaz, KPIren parekoak, baina lau lan ordu gutxiagorekin. Era berean, lan merkatuaren erreformaren babesean gehiegikeriarik ez dela egingo kontrolatzeko batzorde bat eratuko da eta greban parte hartu duten langileak ez zigortzeko konpromezua hitzartu dute enpresariak.

Akordioa eraginkorra izan zedin, enpresariak duela hilabete batzuk desegin zuten elkarte

Gobernuak oso jokaera epela erakutsi du, eta ez dute ezer egin gure lan esparruaren defentsan».

eratu behar zuten berriro eta hala egin zuten herenegun goizean, 35 enpresariaren sinadurekin. Elkarteak ez dira sektoreko enpresari guztiak izango, bai ordea garrantzitsuenak, eta langileek ontzat jotzen duten konponbidea.

Larekik akordioaren garrantzia azpimarratu zuen atzo, «ez grafikagintzako langileentzat bakarrik, lan hitzarmena negoziatzeko duten guztientzat baizik». Sindikatuek oso garbi eduki dute hasieratik grafikagintzako lan hitzarmena baino askoz ere gehiago zegoela jokoan. Nafarroako sektore eta enpresa gehienek lan hitzarmena berriro behar dute aurrean, baina lan merkatuaren erreforma ekainean indarrean sartuko denez, enpresariak negoziaketa atzeratu nahian dabilzala salatu dute sindikatuek. Lan hitzarmenaren negoziaketa hasi duten lantegietan giroa ez da hobea. Bosch Siemens-en, kasu, greba hasiko dute astelehenean, zuzendaritzak ezarri nahi dizkien baldintzak —lan ordu bat gehiago eguneko eta oporraldien murrizketa, soldata beraren truke— onartezinak direlakoan.

«Argitaletxea euskaldundu nahi dugu»

A. BARANDIARAN / TAFALLA

Duela hilabete plazaratu zuen Txalapartak euskarazko 'Negarrik ez, haurra' liburua, Ngugi'wa Thiong'o idazle keniarrarena, eta Fernando Barrena berriozartarra paratu dute euskarazko arduradun, euskal idazle eta kreaio lanak landu eta erakartzeko asmoz. Horren atzean bada egitismo orokor bat.

EGUNKARIA.— Badirudi Txalaparta euskarazko produkzioa

Euskal Herria beti izan da deszentralizatu eta kontzentrazioak gure kulturaren aurkakoak izan dira».

tan, ezkertiarra eta aurrerakoia den argitaletxe bati aurrera egitea oso zaila egiten zaiolako. Bistan duzu argitaletxe aurrerakoi eta ezkertiar gutxi gelditzen direla, eta asko itxi egin direla. Are zailagoa da ahalegina ez bakarrik ezkertiarra, baina ezker abertzalekoa baldin bada. Telebistan edo egunkarietan agertzea zaila da... baina hala eta guztiz ere gutxinaka sartzen ari gara.

EGUNKARIA.— Zer moduz

ko...

ESPARZA.— Euskal Herriko egoera ezin dugu Estatuko egoeratik bereiztu. Batzuetan jendea kontra agertzen da Euskal Herrian dagoen monopolioaren inguruan. Ez dela komenigarria diote, eta enpresa txikiagoak eta ugariagoak hobeak direla. Baina Espainiako erraldoiak ere hor daude, eta orain saiatzen ari dira muturra sartzen, bai irakaskuntzan eta baita euskarazko liburuen arloan ere. Horregatik ni ez nintzateke ausartuko esatera berareiei aurre egiteko enpresa indartsu bat egotea txarra denik. Horrekin lortu dugu Euskal Herrian nahi zuten bezala ez errotzea.

EGUNKARIA.— Zer moduz ikusten da Euskal Herria Tafallatik?

ESPARZA.— Erronka kalkulatu izan zen hasieratik. Aldez aurretik bagenekien posible zela euskal argitaletxe bat zentro kulturaletik at egitea, eta bagenekien oztopoak gehiago izango zirela. Baina guk nahita egin dugu hori. Euskal Herria beti izan da herri deszentralizatua, hiri handiak eta kontzentrazioak beti izan dira gure kulturaren kontrakokak. Beti esan dugu ez dela berdin Iturrama auzoa edo Zaraitzu ibarra, nahiz eta elektoralki Iturrama garrantzitsuagoa izan. Hain zuzen ere, deszentralizazio horretan badugu abertzaleok eta euskaltzaleok gure betiko indarra. Orduan esan genuen: zergatik ez argitaletxea herri txiki batean eta muga kulturaleran? Eta egin dugu eta oso kontent gaude.

EGUNKARIA.— Bost urte argitaletxea sortu zenetik. Gauzak asko aldatu dira ordutik?

ESPARZA.— Bai, geunden zultatik atera gara, eta esperientzia eskuratut dugu. Marjina- tuak eta baztertuak ginen hasieran, eta gero eta onartu- goak gara. Baina inportanteena da jakitea zenbait lagunek irakurtzeko ohitura hartu dutela Txalapartarekin. Frogatu dugu bazela lantzeko esparru bat, eta hori da inportanteena.

Jose Mari
Esparza

ARGITARATZAILEA



SOSLAIA

Tafallatik mundura

Duela bost urte sortua, Txalaparta argitaletxeak tokia eskuratu du euskal esparruan. Jose Mari Esparza bertako buruak azaldu duenez, urte hauetan esperientzia hartu eta hobetu egin dute egoera, baina ez finkatu, inondik inora, «urte- urte urtera gauza berriak egin ditugulako». Tafallako zigilua kanpoan maiz ikusteak poz handia ematen diola dio, eta bertan egotea deszentralizazioaren aldeko apustua izan dela. Aurtengo helburuen artean, ETARI buruzko entziklopediaren azken bi aleak kaleratu eta Euskal Herrian oso famatuak ez diren hainbat idazleren lanak argitaratu nahi dituzte.



Tafallan errotzea nahita egindako apustua dela dio Esparzak.

LEIRE ARZUAGA

indartzeko asmotan dabilela...

JESUS MARI ESPARZA.— Hala da. Argitaletxea hasieratik kanpora begira egin zen, eta gure helburua zen euskal gaiak kanpora ateratea, Espainiara, Frantziara... Hori zen gure helburua, eta horregatik dauka hainbesteko garrantzia Txalaparta erdal edizioak. Baina garbi genuen, bestalde, argitaletxe aurrerakoi batek behar zuela gero eta gehiago euskaraz argitaratu, eta orain saiatzen ari gara beste hizkuntzetan euskarari buruzko gaiak jorratzen dituzten liburuak argitaratzen, euskal gaiak gainean daukagun hesi honetatik ateratzen. Lehendabiziko hutsuneak gainditu eta gero —kontuan hartu behar da Txalaparta erdal inguruan kokatuta dagoela—, azkenean aurkitu dugu behar genuen pertso-

na eta uste dugu etapa berri baten aurrean gaudela, eta hemendik aurrera gauzek hobera egingo dutela.

EGUNKARIA.— Etapa berri honekin orain artekoa atzean utziko duzue?

ESPARZA.— Ez, jarraituko dugu hor ziren erdarazko bildumekin, baina saiatuko gara euskal idazleen kreaioak biltzen eta lantzen. Azken finean, euskarazko liburu gehiago eta hobeak ateratea da gure helburua. Orokorrean, editorial osoa euskaldundu nahi dugu.

EGUNKARIA.— Zer moduzko harrera izan du ezkerreko gaiei buruz liburuak ateratzeko asmoak?

ESPARZA.— Zaila da, hesia sekulakoa da eta. Alde batetik, txikiak garelako; eta bestetik, munduko ordena berri hone-

tratzen zaituztete Euskal Herrian?

ESPARZA.— Erosleen aldetik oso ondo. Txalapartako liburuak oso ongi saltzen dira, eta onarpen ona dute. Kritika onak jasotzen ditugu haiengandik. Baina sistemak kontrolatzen duen prentsaren aldetik arazo asko dago. Adibide bat: 'La Red Galindo' izan da uda honetan gehien saldu den liburua. Eta liburu horrek kristoren eragina izan du atera baino lehen: izan dira debekatzeko ahaleginak eta kristoren kanpaina egin dute liburuaren kontra, Baina **EGUNKARIA** eta 'Egin' izan ezik, ixildu egin dute, beste egunkarietan ez baita ezer atera.

EGUNKARIA.— Zer iruditzen zaizu Euskal Herrian dauden argitaletxeen egoera? Bi erraldoi samarrak eta gero txiki as-

OSKIJATOR

© Zaldi Eroak

